

Iraultzen garaia Bilbo barrena: Bilboren agerkundea objektu eta kategoria historiografikoen eremuan

Dr. Joseba Agirreazkuenaga

Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea

Las dos revoluciones, la liberal e industrial articularon el debate del Bilbao del siglo XIX. El autor ofrece una evaluación de la producción histórica de la época. Destaca el nacimiento y consolidación de una historiografía de la ciudad, Bilbao como objeto y categoría historiográfica. Finalmente, sugiere distintas líneas de investigación.

Iraultza bi, liberalismoak eta industrializazioak alegia, izan ziren XIX. mendeko Bilbon eztabaidaren ardatz nagusiak. Egileak garaiko ekoizpen historikoaren ebaluazio bat eskaintzen du. Hiria historiografiaren agerpena eta honen sendotzea azpimarratzen ditu, Bilbao objektu eta kategoria historiografiko agertzen baita. Azkenik, ikertereko zenbait ildo iradokitzen ditu.

The story of Bilbao in the 19th century hinges on two revolutions, one liberal, the other industrial. The author provides an assessment of the historical output of the era, laying due emphasis on the appearance and consolidation of an historiography of the city, with Bilbao as historiographical object and category. Finally he suggests some possible lines of research.

RESUMEN. La era de las revoluciones : El nacimiento del protagonismo historiográfico de Bilbao en el siglo XIX.

Bilbao entró en el siglo XIX inmerso en un debate historiográfico, exponente asimismo de otros enfrentamientos sociales y políticos, que embargaban a las élites dirigentes. En el consistorio de Bilbao no se ponían de acuerdo en la crónica de los acontecimientos acaecidos durante la guerra de la Convención en 1794-1795: Donde para unos hubo traición otros veían servicio a la patria mediante el acuerdo y la negociación con el ejército invasor de los franceses. Los dos partidos o grupos de presión pugnaban por su matización peculiar en un contexto de hostilidad de la Corte. Este debate nada tiene de extraño en la sociedad europea, en particular en la tradición historiográfica británica. J.A.Ibañez de la Rentería, introductor en España de las teorías de Montesquieu ya empieza a teorizar sobre los partidos y su función al final del siglo XVIII. Su experiencia política en la comunidad política de Bilbao no sería ajena a sus teorías. El conflicto social y político de la Zamacolada(1804) de nuevo dividió a los bilbainos. Durante el siglo XIX y XX ha sido uno de los temas más debatidos que no investigados con rigor. Se fraguaron diversas guerras en el siglo XIX, todas ellas con una dimensión de guerra civil, en las que nacieron los nuevos imaginarios de heroicidad e invencibilidad de los bilbainos, creados a raíz de los sitios que sufriera la ciudad. En suma, a lo largo del siglo XIX se vivieron varias revoluciones que desembocaron en una serie dramática de acontecimientos. Tanto la revolución liberal como la industrial despertaron el interés de los estudiosos, de los políticos del siglo XIX en su condición de intelectuales. Se investigaban las causas y consecuencias, sociales, económicas, políticas. Estos estudios se publicaron en el siglo XIX y XX con el afán de aproximarse a un diagnóstico comprensible para los habitantes de cada tiempo. Paralelamente cultivaban un tipo de historiografía jalonada de anécdotas pintorescas.

La revista publicada para conmemorar el 600 aniversario de la fundación de la villa es un indicador del nivel historiográfico existente en Bilbao a principios del siglo XIX

Señalamos a continuación los temas que mayor interés historiográfico generaron en autores coetáneos del siglo XIX así como en otros del siglo XX. Pienso que la historiografía de Bizkaia y en particular la producida desde Bilbao sobre el siglo XIX no se puede reducir a la polémica foral del siglo. Temas que requieren análisis monográficos en el contexto y en la categoría historiográfica de Bilbao :

- Guerra de la Convención, Zamacolada, Guerras napoleónicas. Guerras realistas, carlistas y los sitios que soportó Bilbao.

- La transición a la revolución industrial y orígenes del capital: Debate sobre las infraestructuras viarias y de ferrocarriles, aduanas y vigencia del sis-

tema o status foral en el marco de la monarquía absoluta y del sistema constitucional en el Estado Español.

- La organización político administrativa de Bilbao y su articulación en las Juntas Generales y en el Estado.

- Demografía y problemas sociales de la vida cotidiana en Bilbao: Vivienda, marginación, beneficiencia.

- El ascenso de las nuevas burocracias.

- La sociabilidad política: nacimiento y desarrollo de las nuevas ideologías y su organización. Las formulaciones fueristas vasquistas de la primera mitad del siglo XIX en el contexto del enfrentamiento realismo-carlismo versus liberalismo.

- Instrucción pública e infraestructuras culturales y de ocio.

Finalmente, los viajeros realizaron descripciones que reflejaban los imaginarios de Bilbao y sus habitantes

Dos fueron los fenómenos que transformaron desde su seno la sociedad bilbaina: La revolución liberal y su correspondiente proyecto del nuevo estado-nación español y la revolución industrial.

1. La desaparición en la primera mitad del siglo del equilibrio derivado del sistema institucional de Bizkaia a raíz de la recomposición de las tres comunidades de Bizkaia - Las Juntas Generales-Diputación, el Consulado y la villa de Bilbao- en el marco de la revolución liberal. La revolución liberal simplificó el sistema de equilibrio y concurrencia de poderes. En Bizkaia por un lado la Diputación y las Juntas Generales aumentaron su poder de articulación política en permanente competencia con las instituciones derivadas del nuevo sistema constitucional del Estado español. Con lo cual, el poder de la villa de Bilbao quedó subsidiarizado a ambos y el análisis comparado de los presupuestos del Señorío y los de la villa reflejan la nueva relación.

2. Desde la perspectiva socioeconómica, el éxito de la revolución industrial a fines del siglo XIX, después de serios intentos frustrados, permitió que Bilbao se erigiera en el gran centro urbano del País Vasco.

Las futuras investigaciones deben orientarse hacia la creación de una sólida infraestructura de historia que permita el conocimiento de las estructuras básicas de la sociedad y los nervios sociales que las alimenta. De este modo surgirá una segunda generación de renovadas reflexiones. Debemos superar el estadio de la historia cronista en favor de un tipo de historia más analítica y ubicada en una perspectiva transdisciplinar acorde con las interrogantes del presente.

Por poner un ejemplo, carecemos de un análisis de las instituciones formales, sus protagonistas individuales o colectivos. Tampoco hemos indagado en

las instituciones informales que regulaban la vida cotidiana y las formas de sociabilidad, así como de las estructuras socioeducativas tan necesarias para cualquier interpretación plausible.

Entre los autores del siglo XIX destacamos por su aportación a la historia de Bilbao, las obras de J.A.Zamacola, F.Hormaeche, A.díaz de Mendivil, C.Villabaso, Trueba, J.E.Delmas, E.Epalza, G.Gomez, F. Aguirre, S.Goicoechea, V.L.Gaminde, P. Lemonauria, P. Alzola. es preciso destacar la obra de J. Pons y Meri.

*Durante el siglo XX, después de la obra de T.Guiard, se realizaron asimismo diversas interpretaciones histórico literarias como la de J.C. Gortazar, J.Orueta, Sanchez Mazas. La monografía publicada con motivo del centenario del Banco Bilbao en 1957 supone un hito historiográfico. En obras generales como la *Tb. Lefebvre* y otras las referencias son importantes. A partir de 1960 M.Basas amplió la información cronística. En los últimos años se han publicado una serie de estudios monográficos que nos invitan a nuevos retos teóricos y también empíricos.*

1. Bilboren nortasun historiografikoa.

XIX mendea hasi bezain laster, Bilbon eztabaida historiografikoaren zurrin-biloan murgilduta zegoen. Buruzagiak ez zetozen bat Konbenzioko gerraren giroan gertatutakoaz.

Bilboko merkatari talde bat, Castaños buruzagi zuela 1795.eko uztailaren 22.an Monecy jeneral frantzesarekin kapitulazioa sinatu zuen. Baina beste talde batek Vildosolaren jarraitzaileek aldiz Bilbotik alde egin zuten. Kapitulazioak 11 artikuluz zituen eta Castañosetarren helburu nagusiak ziren frantzes armada Bilbon ez gelditzea, zergak arintzea eta hiria zaintzea. Baina gerra berehala amaitu zenez gero, (Basilea, 22-VII-1795) berriz Vildosolotarrak itzuli zirenean elkarren aurka hasi ziren. Vildosolatarren ustez Castañosen taldea traidorea zen. Bestalde Bizkaiako batzar nagusiak Madrilleko Kortean bizkaitarren aurkako giroa baretzeko eta traizio susmoa kitatzeko gerrari buruz liburua prestatu zuen, Jose Agustín Ibañez de la Rentería bilbotarra eta jauntxo ilustratuak idatzia: *Manifiesto histórico de los servicios que ha hecho el M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya en la última guerra con la Francia.* (1795)

Baina Bilbotarrak ez ziren bat etorri egin zen interpretazioan eta Bilboren nortasuna eta protagonismoa azpimarratzeko asmoz beste liburu bat prestatu zen udalaren agindupean: *Manifiesto histórico de los servicios que la muy noble Villa de Bilbao ha hecho con motivo de la última guerra con la Francia: dividido en dos partes* "(1798).¹ Ikuspegi honetan Castañosetarren ikutua nabarmen-

na zen. Idazkia bizi bizia. Castaños eta Vildosolatarren arteko liskarra areagotu zen . 1797.an Castañostarrak ziren nagusi udalean eta liburuaren imprimaketa hasita zegoen baina azkenean geratu egin zen Castañosetarren aldeko sententzi judiziala eranskin bezala argitaratzea nahi zutelako.Heuren arerioak ez zela zilegizkoa eraso zuten aitzaki zuzena eragozteko argitalpena eta azkenean argitaratzeke gelditu zen. . Giro horretan, udal berriak, 1800.an bestelako testua burutu behar zela, denen gustukoa erabaki zuen eta horretarako J.J. Colon de Larreategiri eskatu berria, liskarrak baretzeko asmoz. Eta azken honek idatzitakoa argitaratu zen.: "*Compendio histórico de los servicios de la Villa de Bilbao en la guerra con la nación francesa publicada por nuestra Corte en el año de 1793.*" (Bilbao 1800.)

Oinarri oinarrian bi ikuspegiak bat datoz baina lehenak zehaztasun gehiago ditu bigarrenak baino. Desberdintasunak frantsesak Bilbo okupatu zuteneko momentuei buruz dira noski. *Manifestoren* ikuspegia negoziatzen gelditu zirenen ikuspegia azpimarratzen du gehiago *Compendioak* aldiz, haundiki eta alde egin zutenena. Baina honetan azpimarratu behar duguna zera da: Bilbo lehen mailako objektu bihurtu zela, konbentzioko gerra honetan eta ondoko interpretazioetan Bilbotarren nortasuna agiri agirikoa dela, tartean Bilbotarren arteko liskarrak ere nabarmenduz. Bestalde Bizkaiako lege zaharreko erakundetzean Bilboren izatea berezia eta indartsua zen : Hiru erakunde nagusi ziren orduan, Diputazioa, Batzar Nagusietan aukeratua, Bilboko hiria, eta Bilboko merkatal kontsulatua. Herrialdeko lan nagusiak hiruren artean burutzen ziren, hala nola Orduinako errepeidea. Beraz XVIII mende bukaeran Bilbok gogor ekin zion bere nortasuna eta eragin politikoa kontserbatzeko eta horretarako Batzar Nagusietan herri txikietakoko ordezkariak lortzen saiatzen ziren Bilbo merkatariak.

Hara bada, kronika historiko biren nundik norakoak, gizarteko eliteen tirabiren adierazle nabarmena bihurtu zen. Historia, ez da badaezpadako ekintza. Bere hartan balio eta oihartzun ugari gordetzen ditu. Eta historialari oro horren jabe behar du izan edozein ikerketari ekiteko orduan.

Horrela hasten da mendea Bilbon, gerra baten kontakizuna eginaz eta 1800.an liburu garratzitsua bihurtu zen berau, Bilbok Bizkaiaren barruan bere izatea eta nagusitza berezia baieztatzeko era baitzen.

Europako beste toki batzuetan eztabaida historiografikoen bidez talde bi sortzen ohi ziren. Gogora besterik ez Ingalaterran adibidez tory eta whig joerak, edo Belgikan² beste horrenbeste. XVIII mendearen bukaeran J.A. Ibañez de la Renteria bilbotarrak Bilboko esperientzian finkaturik agian, partidu politikoei

¹ Ikus, eztabaidaren muina aztertzeko: FEJOO P., *Bizkaia y Bilbao en tiempos de la revolución francesa*. Bilbao, 1991, 210 orr. eta urrengoak

² BUTTERFIELD H., *The whig interpretation of History*. London. G. Bell and Sons, 1931
HISTOIRE et historiens depuis 1830 en Belgique. Revue de l'Université de Bruxelles. 1981-1982

buruzko teoriak idatzi zituen. Alde batetik ez da harritzekoa, bai Bizkaiko erakunde errepresentatiboan, Batzar Nagusietan, bai eta Bilboko udalean talde nagusien sorkuntza eta praktika politikoa gero eta antolatuagoa eta agerikoa baitzen.

XVIII mendearen bigarren erdian historiaren zaletasuna biztu zuen ilustrazio giroak eta bereizten hasi ziren alde batetik erudiziozko kronikak eta bestetik narrazio historikoak, azken hauek literaturgintzatik hurbil baina premiazkoak jakina, iraganaren eta errealtate historikoaren interpretazio eta ezagutza zuzenera iristeko. Euskal Herrian ere ilustratuek proiektu historiografiko haundiak prestatzen hasi ziren. 1765.an bertan *Plan para una historia nacional vascongada* Herri Adiskideen idazkari zen Olaso jaunak burutua.³ Baina egia esan historiaren zaletasuna erromantizismoarekin, XIX mendean zehar, areagotu egingo zen eta hiri bakoitzeko nortasuna indartzeko modua bertako historia egitea izango da. Horrela Bilbok bere historiografia sortuko zuen aipatu dugun obrarekin eta aldi barri bat agiri zen. Handik gutxira beste ilustratu liberal baten historian, Juan Antonio Zamacolaren *Historia de la naciones vascas* izenekoa,⁴ Bilbori buruzko informazioak eta deskripzioak jakingarriak eta garrantzitsuak bihurtu ziren.

Historiaren birbalorazio horretan, nun iragana perfezio galduraren altxorra bihurtzeko zorian zen, mitoak, leiendak eta guztia nahastuko da. Literatur kutsuko historia gailenduz joango zen benetan gertatu ohi ziren gertakizune parean. Eta giro horretan eskola positibista nagusitu zen, Ranke alemaniarren eskutik Bereiztu beharra zegoen, nun bukatzen zen asmakizuna eta nun kontakizun fidakorra. XIX mendea beraz positibismoa eta dokumentuen azterketa kritikoa- ren garaia bihurtu zen historiografia mailan. Baina horrez gainera estatu-nazio- gintzak historiografia nazional berriak sortaraziko ditu, fenomenoaren lejitimazioarako. Eta horren parean, tokian tokiko historiak, hiriko historiak ere konstelazio nazional horren eremuan, indarberrituko dira.

1.1. Iraultzen garaia eta giroa

Euskal Herrian, XIX mendean zehar gertakizun larri ugari bizi izan zen. Gerren zergatiak eta abarrek, ikerketak burutzeko grina biztu zuen. Hala ere garaian garaiko historiografia anekdotismoan ere egon zen finkaturik eta XVI mendez geroztiko dogma edo mito historikoak eragin haundikoak ziren.⁵

³ OLABARRI I., "Proyectos historiográficos de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País" en I *Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. San Sebastian. 1986, pag.462

⁴ ZAMACOLA J.A., *Historia de las naciones bascas de una y otra parte del pirineo septentrional y costas del mar cantábrico desde sus primeros pobladores hastanuestrosdías conla descripción, carácter, furos usos, constumbres y leyes de cada uno de los estados Bascos que hoy existen*. Auch. 1818. 4 Vol.

⁵ MAÑARICUA A.E., *Historiografía de Vizcaya*. Bilbao, 1973. 135 orr.

XIX mendean zehar bi fenomeno nagusi gihartu ziren Bilboko gizartean: Alde batetik iraultza liberala eta beranduago iraultza industrialaren errozkotik aldaketa, bi fenomeno desberdin eta denboran une diferenteetan errotuak. Erakundetze mailan zera azpimarratu behar: Iraultza liberala Espainiar estatuan indartu hala, lege zaharrekoa desagertuz joan zen. Beraz Bilboko kontsulatuaren eta hiriaren eragin eta statusa aldatu ziren. Baina bestalde Bizkaiako Batzar Nagusia eta Diputazioarena indartu eta sendotu zen. Horra bada, Bilboko hiria alde batetik Estatu liberalen indartze eta Bizkaiko erakunde intermedioen sendotze direla medio, garai bateko nortasun juridiko eta ekonomiko kement-sua galdu egin zuen.

Giro horretan, XIX mendeko Bilbo historia ardatzat harturik, modu laburrean eta enblematikoan esateko, hiru oinarrizko lan orokorrak gogoratu edo aukeratu ditut, garaian garaiko historiografian barneratzeko eta garaian garaiko ikusmodeak ezagutzeko. Batez ere XIX menderdian, guda zibil karlistan jasan zituen setioen ondoren, Bilbok bere izate eta nortasuna berrantolatu beharrean aurkitu zen:

1. Konbentzioko gerraren inguruan aipatu dugun liburua eta Zamacoladaren matxinadak sortarazi zuen historiografia.

2. J.E. Delmas, F. Hormaetxe eta bestek idatzi eta argitaratu zuten *Viaje pintoresco por las provincias Vascongadas*, 1846.ko urtean.⁶

3. *El Centenario* aldizkariaren inguruan bildu zirenen ikuspegia, 1900.an.⁷

2. 1800- 1846 urte bitarteak

Hiru lan literario eta historiko hauek, halako hirualdi berezi eta bilakaera erakusten dute Bilboko ibilbidean. Liburu edo aldizkari bakoitzean gogoeta neurri eta jakintza estilo zehatza dakusagu. Gogoeta maila hori da oraingoan interesatzen zaiguna. Dena dela, bilbotarren mitologiaren baitan karlistek eragindako lehen guda zibilean 1830.ko hamarkadan, bilbotarrek 1835 eta 1836an, jasan zituzten setioak eta gero bigarrenean 1874.an kontzientzi kolektiboan irmotasuna eta elkarkidetasuna sortu zuten.⁸ Ikusi besterik ez dago setioen

⁶ *Viaje pintoresco por las Provincias Vascongadas. Obra destinada a dar a conocer su historia y sus principales vistas, monumentos y antigüedades etc, en láminas litografiadas, copiadas al daguerreotipo y del natural por J.E.D. y acompañadas de texto.* Bilbao, N.Delmas, 1846, 158 orr. Marrazkien Gerrargitalpena: Zugaza L. (ed). BBK. Bilbao 1984.

⁷ *EL CENTENARIO. Revista bilbaina ilustrada.* Bilbao 1900. Ed. facsimil, 1996. Sarrera. J. Agirreazkuenaga.

⁸ Ugaria da XIX mendean bilbotarrek idatzi zuten historiografia eta testigantza setioei buruz. Aski da horretarako ikusten Jon Bilbaoren Eusko Bibliographia, Bilboren atalean. Apartatu berezia eta monografikoa bete beharko luke setioen inguruan idatzitakoa.

XX mendean oinarrizko ikerlan bi aipatu behar ditugu:

inguruan sorturiko literatura ugaria. Lan horiek, garaiko historiaren ikuspegia erakusten digute eta gizartean bizi zen eztabaida eremua. Bilboren nortasun soziala eta kohesio gisakoa sortarazteko balio izan zuten. eta mitologia amankomun berria liberalismoaren epikaren alde, hiri erresistentziala tradizionalismo itsu eta atzeratuaren aurrean. Eta bilbotar horien ikusmolderen baitan, Estatuko indar liberalak izan ziren salbatzaile eta beraz hiriaren askatasunaren bermatzaile indartu zen kementsu. Beraz Espainiar Estatu berria askatasun indibidualen eta Bilboren nortasunaren sostengatzaileztat azpi azpian agertzen ari zen.

Bestalde, 1833-1839.eko gerra Bilboren izena Europan zehar nazionarteko egunkarietan agertu zen. Bereziki Ingalaterran, non Britainiako lejioa antolatuta zen gerran parte hartzeko liberalen alde.⁹ Gerraren amaierak ziklo eta lege zaharreko garaia ireki zuen bukaera izan zen.

Lehen momentu historiografikoaren azterketaz hasi dugu txosten hau. Baina esandakoari zera erantsi behar diogu, Zamacolada izenez ezagutzen den matxi-

RUIZ DE AZUA M. Estibalitz , *El stito de Bilbao en 1874. Estudio del comportamiento social de una ciudad en guerra*. Bilbao, 1976.

URQUIJO J.R., "Bilboko setioak- Los sitios de Bilbao" (1830 hamarkadakoak), in *Azterketa historikoak- Estudios históricos III. John Francis Bacon. Seis años en Bizkaia*. (ed. J.R. Urquijo- M. Urquijo) Ormaiztegi, Zumalakarregi Museoa, 1994. 17-165 orr.

⁹ IRUJO M., *Ingalaterra y los vascos*. Buenos Aires, 1945.

MARCHALL-CORNWALL, J., "British aid in the Carlist War: 1835-1840 in *History today*, 1976, 26, pp. 179-187.

SANTAMARIA J.M., "Testimonios literarios británicos referentes a su participación en la primera guerra carlista" en *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae. Pars altera*. Victoriaco Vasconum MCMLXXXV, p. 1263-1270

A concise account of the British auxiliary legion commanded by General Evans in the expedition against Don Carlos, in the civil war of Spain by a volunteer in the Queen's Service. Scarborough 1837.

CROCKER S.- BARKER B, *Sketches from the Basque Provinces of Spain*. London, 1839.

WILKINSON H., *Sketches of scenery in the Basques provinces of Spain, with a Selection of national music, arranged for pianoforte and guitar: illustrated by notes and reminiscences connected with the war in Biscay and Castile*. London, 1838.

Royal Commission on historical manuscripts, Prime Ministers' Papers Series. *Palmerston. I :Private Correspondence with Sir George Villiers (afterwards fourth Earl of Clarendon) as Minister to Spain 1833-1837*. Edited by Roger Bullen and Felicity Strong. London, 1985.

HENNINGSEN C.F., *A Twelvemonth's Campaign with Zumalacarregeui during the War in Navarre and the Basque Provinces of Spain*. London 1836. Review in *The Quarterly Review*. 1836, Vol. 57, pp 514-532.

GOICOECHEA S., *A luminous guide for the British cooperative forces in Spain on the principal subjects connected with particular information relative to the Basques provinces*. Bayonne, 1836. (English-Spanish and Basque vocabulary).

EVANS L., *Memoranda of the contest in Spain*. London, 1840.

(LORD CARNARVON) *PORTUGAL and Galicia, with a review of the social and political state of the Basque provinces; and a few remarks on recent events in Spain to which is now subjoined a reply to the "policy of England towards Spain"*. London, 1837,

AGIRREAZKUENAGA J.- URQUIJO J.R. (Eds): *150 años del Convenio de Bergara y de la ley del 25-X-1839*. Vitoria-Gasteiz, Basque Parliament, 1990

nada Bilbon ondorio latzak utzi zituen eta bilbotarren memorian XIX mendean erabat erroturik gelditu zen. Matxinada zen alde batetik, bestetik Zamacola eta bere kideak Jaurerria erakunde sendo legez nahi zuten antolatu eta Bilboko merkatariak bereziki beraien hegemonia galtzeko arriskua ikusi zuten. C.Villavasok monografia jakingarria idatzi zuen¹⁰ eta XX mendean B. Etxegarayek ere 1922. an ekin zion lanari.

3. 1846-1880 garaia: Bilboren nortasun berriren agerkundea eta sor-kuntza

Belaunaldi berri baten protagonismoa agiri zen, liberalismoan hezia eta liberalismoaren alde burruka behar izan zuena. V.L.Gaminde, P. Lemonauria, J.E. Delmas, F. Hormaetxe, Urioste de la Herran, Aldecoa, besteak beste izan ziren kezka intelektualez Bilbon bizi ziren idazle eta ekintzaile politikotarikoz batzuk. Beraien biografia eta ibilbide intelektuala ikusteko aski da ikustea *Diccionario biográfico de los Diputados generales, burócratas y patricios de Bizkaia. (1800-1876)*¹¹ Garaiko aldizkaritan eta liburuxketan agiri zaigu Bilbori buruzko ikuspegi berriak. Liberal fuerismoaren eremuan gogoratu behar da *El Bilbaino* aldizkaria, 1837.an gerra garaian agertu zena, *El Vascongado* edo eta *El Vizcaino originario*.¹²

Baina lan guztien artean nire ustez geure helbururako *Viaje pintoresco por las Provincias Vascongadas*-en projektuan erakusten da ekimen intelektual berria. Berez aldizkari-liburuxka honetan eta Hormaetxeren eskutik esan dezakegu Bilboko historia sujeto eta objeto haundia bihurtu zela. Hala ere gogoratu behar dira lehenago Iturrizaren *Historia de Vizcaya* delakoan¹³ Bilbok monografia zehatza zuela mende bukaeran. Gerora, Hiztegi geografiko-historikoan ere Bilboren XIX mende hasierako monografia mende hasieran ikuspegi sakona lantzen du eta bestelako hiztegiaren ere, Miñano edo Madoz hiztegiaren.¹⁴ Baina Hormaetxeren monografia helburu historiografiko nabarmena zuen, eta ekarpen berriko lana izango da.

¹⁰ VILLAVASO C., *La cuestión del puerto de la Paz y la zamacolada*. Bilbao 1887

¹¹ AGIRREAZKUENAGA J. (zuzend.) *Diccionario biográfico de los Diputados generales, burócratas y patricios de Bizkaia. (1800-1876)*. Bilbao, Batzar Nagusiak, 1995.

Horrez gainera Espainiar Parlamentuen beraien protagonismoa aztertzeko, ikus ere *DICCIONARIO de Parlamentarios de Vasconia*. Gasteiz- Vitoria, Eusko Legebiltzarra, 1993.

¹² AGIRREAZKUENAGA J., *Euskal gizartearen barrena euskaltzaletasun politikokoaren sorrera garaian : zaldunak, matxinoak, enpresariak, langileen eraketa (1789-1876)*. Bilbao, Beitia ed., 1994,

¹³ ITURRIZA J.R., *Historia general de Vizcaya. (1780-1785)*

¹⁴ *Diccionario geografico historico de España. Sección I Comprehende el reino de Navarra, señorío de Vizcaya y provincias de Alava y Guipuzcoa*. Madrid, 1802.

MADOZ P., Bilbori buruzko artikulak, menderdiko egoera erakusten digu.

Aldizkariaren idazleak, liberal ideologiazkoak ziren, baina bi muturrekoak, kontserbadoreak eta progresistak. Baina 1844. urtez geroztik, euskal gizartean ideologia desberdinetakoak, amankomuntasunezko neofuerismo berriaren inguruan elkartuko ziren eta aldizkari hau lehen proiektu amankomuntzat jo dezakegu. Nolabait gorago aipatu ditugun Bilboko aldizkariaren esparrukoa eta gerora Bilboko aldizkari-egunkari garrantzitsuenaren, *Irurac bat*, aurrekoa. Helburua hasieran erakusten zuten. "Nos hemos comprometido sin embargo a darles a conocer, la historia, las tradiciones, la administración, los hábitos del pueblo vascongado, su topografía singular, todo cuanto tiene relación con su modo de ser y de vivir"¹⁵. Sujeto berria dakusagu, pueblo vascongado, eta bestalde tirabira historiografiko eta politikoaren baitan kokatzen dute beraien burua. "La pasión con que fueron atacadas nuestra nacionalidad y nuestras glorias, nacio del deseo de aparecer originales y nuevos que arrastró a algunos de aquellos escritores estimables; del de halagar al Gobierno en los desmas"¹⁶ Ez zen lehenengo aldiz "pueblo vascongado" delakoa nacionalidad kutsuz edo definizioz agiri zela. Lehen karlistadan, liberal fueristen esparruan, bestean ez baitzen posible horrelakorik, euskaldunak nacionalidad zentzu politikoan Urioste de la Herran Diputazio liberaleko dokumentu ofizialetan eta Hormaetxe gerrari buruzko interpretazioan erabili zuten jadanik.¹⁷ Baina aberria, Españiar Estatua agiri da. ("Confesamos, hablando con lisura, que nunca hemos creído en la necesidad de una absoluta centralización en nuestra patria"). Beraz ikerketa historikoa ezta neutrala, ezin da kokatu eztabaida politiko eta ideologiko-etatik at. Azken batean zatia baino ez da. Baina bestalde argi eta garbi bereizten hasten da historia profesional baten sorrera, politikoen menpe edo delako esku-biden menpe ez dagoena. Horregatik azpimarratzen dute, "Este punto de pura erudición, que en nada mengua nuestros derechos", beraz gauza bat ikerketa historikoa bestea eskubide politikoak. Mito kantabrikoaz ari da, noski, berau zelako jatorrizko independentziaren frogatzeko oinarrizko mitoa eta argudio legitimatzailea soberania paktatuaren teoria Bizkaian aplikatzeko eta Bizkaiako boterea bermatzeko.

Ingurune horretan, euskal herritarren historia berria, liberalismo berriak eskatzen zuen tankerakoa, Españiar estatu liberalean egoera berria zenez gero, egokiro modu berezian txertatzeko, hasi zen historia berriaren asmakizuna. Eta tartean Bilboko ere agiri da. Bilboko historia modu sistematikoan erakutsita agiri da eta XIX mendeko soziabilitateaz eta gizarteko egoeraz deskribapen zehatzak eta zuzenak erakusten ditu Hormaetxek.

Igarobide prozesu honetan ahaztu ezinekoak dira Bilboko azpiegitura kulturala eta hezkuntzazkoa. Menderdiko Bilboko intelligentzia, mende hasieran

¹⁵ *Viaje pintoresco por las provincias vascongadas*, sarrera, Hormaetxek idatzia.

¹⁶ *Ibidem* 2 orr.

¹⁷ AGIRREAZKUENAGA J., *Vizcaya en el siglo XIX: Las finanzas públicas de un estado emergente*. Bilbao, UPV-EHU, 1987.

indartzen ari ziren hezkuntz zentroetan hezi zen. 1818.an Kontsulatuak sortu zuen merkatal eskola garrantzitsua izan zen, bertan Lista liberala irakasle izan zelako eta Hormaetxeren maisu adibidez. 1842.an Bilbon bigarren mailako hezkuntz institutua indartu zen eta horren inguruan jakintza gune sortu zen irakasleen artean. Menderdian merkatal eskolan ere irakasle prestuak egon ziren eta Bilbori buruz lanak idatzi zituzten. Bestalde, liberalismo berriaren programaren arian, azpiegitura kulturalak sortzen ari ziren Bilbon, erakunde publikoen ekimenez. Gogoratu baino ez Biblioteka eta Museoaren sorrera 1841.an, Diputazioaren eraginez, arrakasta laburrez.¹⁸ 1877.an aldiz, Pablo Alzolaren bidez, Bilboko udal bibliotekaren antolaketa eta sorrera hasi zen.¹⁹ Guzti honek, Bilboren protagonismo kulturala ekarri zuen eta kultur gune bihurtu. Euskaltzaletasun politikoa ere, euskareriko kezka eta ardura ere, parametro berrien baitan Bilbon gihartzen ari zen, Ullibarri moduko Abandotarrak Bilboren parean bizi baitziren.

Aldi berean eta Bilboko kultura politikoak aberasten ari ziren. Garaiko alderdi politikoez gogoratzekoa da A.Díaz de Mendibilen lana.²⁰ Bertan ondo tipifikaturik, liberal progresisten ikuspegitik, agiri dira Bilboko alderdi desberdinetako buruzagiak 1841.an hain zuzen ere.

XIX mendeko bigarren erdian, Bilboko historialari ofiziala J. E. Delmas bihurtu zen. Honek 1850.an jadanik Bilbao izeneko artikulua monografikoa argitaratu zuen²¹ Dirudienez, asmoa ere izan zuen Bilborekin buruz historia luze eta sakona burutzeko. Baina azkenean, arazo eta gai zehatzak baino ez zituen landu, sarritan ikuspegi pintoreskoan murgilduz. Bibliografia oparoa du eta beharbada guztien artean *Cosas de antaño* liburuan bildurik daude.²² Bestalde Bilboko agerkari nagusiaren buruzagi izan zen, *Irurac bat.*, biografia generoa eurrez landu zuena. Dena dela eragile nagusia izan zen Bilboko historia zale-tasunean.

Atal konkretuak gogoan izanik, A.Epalzak aldiz, hilkortasun eta arazo demografikoez saiatu zen eta mende bukaeran Gurmensindo Gomezen lana klasikoa bihurtu zen.²³

¹⁸ AGIRREAZKUENAGA J., "Bizkaiko Museoa eta Biblioteka publikoaren egitasmoa 1840.an: porrota edo jokabide paradigmaticoaren hasieran" X Congreso de Estudios Vascos. Iruñea, 1987, 333 orr.

¹⁹ M.S.G., "Biblioteca y archivo del Excmo Ayuntamiento de Bilbao" in *Idearium*. Bilbao, 1916, 143-151 orr.

²⁰ A.D.M. (A.Díaz de Mendivil), *Linterna mágica o sea revista a los partidos políticos de Bilbao*. Madrid, (Imp. Pita) 1841.

²¹ "Bilbao". *Semanario Pintoresco Español*, 1850, 75-76.

²² DEMAS J.E., *Cosas de antaño. Capítulos históricos*. Bilbao, 1896.

²³ EPALZA G., *La mortalidad de Bilbao y cálculos relativos a la duración de la vida en dicha villa*. Bilbao, 1858.

GÓMEZ G., *Cómo se vivie y cómo se muere en Bilbao*. Bilbao, 1896.

Giro honetan goraipatzekoa da Pons Meriren liburua, merkatal historiari buruz goi mailako lan monografikoa argitaratu zuelako.²⁴ Beharbada euskal historiografian lan nagusienetariko bat, baina ia ia ezezaguna.²⁵

4. 1880-1900: *El Centenario, Bilbotar jator eta peto petoen Bilbogintza asmatuaren adierazle dugu*

Hirugarren muga, *El Centenario* aldizkariaren agerpena da, hain zuzen ere XX mende hasierakoa delako eta Bilbok bizi zuen iraultza industrial bortitzaren islada ere bada.

Bertan agiri da zer nolako kezka historiografikoa zegoen Bilbon 1900.an. Eta baita ere erabat jabe ziren Bilboko idazleak, Bilbok behar zuela historia mardula eta luzea. Eta horren gabezia nola edo hala bete behar zela.

El Centenario aldizkariko artikulua Bilboko iraganaz arduratzen dira ikuspegi nostalgikoa eta "passeista" aplikatuz. Autore guztien artean badaude bi garrantzitsu ardatz bilakatu zirelako: Emiliano Arriaga eta Migel Unamuno. E. Arriagak lau urte lehenago *Lexicón etimológico naturalista y popular del Bilbaino neto*. argitaratu zuen eta Bilboko jatoritasun galdura berreskuratu eta beraz berrasmatu zuen. Elisée Reclus Euskal Herriaz zuen ikuspegia *Les Basques un peuple qui s'en va*²⁶ beste horrenbeste pentsatzen zuen Bilbotaz E.Arriaga. Merkatarien eta artisauen Bilbo jatorra desagertzeaz zegoen. M. Unamunon Mi Bochito artikuluan bat dator ikuspegiari, bere haurtzaroa arira ekarriaz. Baina azkenean, Viva Bilbao ! oihukatzen du eta garapen industrial berriaren aldeko karraxia, berea egiten du, sentimentalismo nostalgikoak albo batera utziz.

E. Arriaga pertsonai polifazetikoa zen, musikari ona, Filarmonikaren sortzailea eta presidentea., Centro Vasco.ko presidentea Bidebarrieta kalean, El Sitio elkarte liberal erradikalaren aurkakoa. Ikuspegi liberala izan arren, S. Aranaren Eusko Alderdi Jeltzalean, alderdi teokratikoan, lehen unetik zegoen.

Beste idazleen artean, Euskalerrriakoen joerakoak zirenak agiri zaizkigu aldizkarian. Adibidez F. Ulacia, O. Rochelt. T. Guiard. Beste batzuk karlista sutsuak izandakoak eta tradizionalista legez jarraitzen zuten: Aristides Artiñano edo tradizionalista foralista zen J.M. Angulo. Azken alea, erlijo kutsuz betea, azken hauen eraginezkoa izan bide zen. Kontserbadore dinastikorik ere ez zen faltatu. Argos goitizenez sinatzen zuena Sabino Goikoetxea zen, El Nervion egunkariako zuzendaria. Horrez gainera apaiz ugari daude idazleen artean: F. Iturribarria, E.J. Labayru, J.M. Garcia Galdakano.

²⁴ PONS Y MERI J., *Reseña de la Escuela Superior de comercio de Bilbao*. Bilbao. 1893

²⁵ AGIRREAZKUENAGA J., "La tradición historiográfica vasca: su desarrollo en el marco de las ciencias sociales", in *Historia Contemporánea*, n7. Bilbao, UPV-EHU, 1992., 257-281

²⁶ RECLUS E., *Les Basques, un peuple qui s'en va* *Revue des Deux Mondes*, 1867. Traducción en *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 1929, p.57-83

Jaungoikoa eta Foruak lemapean antolakunde sozial berriaren ataraian ote? Agian bai. Baina iraultza industrial ez zen alperrik gihartu Bilboko gizartean. Emakumezko idazlea ere agiri da, Adela Erasu izenekoa eta erret familiaren bisitaldia deskribatu zuen.

Antonio Arluciaga aipatu behar, Bilboko Udalak ez zuela kultura eta artea aintzakotzat hartzen eta, aldizkariaren bultzatzaile nagusia bihurtu zen.

Emiliano Arriagaren testuak dira adierazkorrenak, fatum tragikoaren ikuspegiari oinarriturik idatziak : "Nosotros causamos la peridición de *Bilbao La vieja* y en el pecado llevamos la penitencia.. Hemos tenido que tragarla y atravesando de nuevo el rio, volver a la jurisdicción que abandonamos...y tirar *para el ensanche*..."

"Todos somos ricos o queremos parecerlo; se gasta la salud y se derrocha el dinero en lujos estrepitosos y en torpes bacanales... De arte... nada; sólo se tiene noción de este nombre por lo que reza algún rótulo de esquina... Por ejemplo el de *Artecalle*." Baina arte hori kaletarte adierazten zuen.

Euskarak ez zuen presentziarik lortu aldizkarian Eta Bilbon Larraskitutik at ere euskarazko giroan bizitzeko, jenderik bazegoen.²⁷ Euskalmerriakoak izan ziren gehien arduratu zirenak euskararen berbizkondeaz eta modernizatzeari. Zalantzarik barik Resurrección Maria Azkue izango da euskararen lider naturala eta irmoa. Sabino Aranak euskara gogorra eta ideologizatu sortu zuen, euskara ortopedikoa eta jakina E. Arriaga moduko pertsonaiek Bilboko dialektoa lantzea errezago ikusten zuten, hizkuntz diferentzia mantentzeko. Bilboko gaztelania euskararen ortopedia behar zuen baina oraingoan gaztelania modoiloa sortzeko, bilboko eran.

Azkuek sortu zuen *Euskaldun Biltokia*. Epaltzarren laguntzaz *Euskaltzale* astekaria, euskal gramatika eta abar, euskara Bilbaon bizi bizirik irauten zuela agertzen du. Bestelako bilbainismoa zen azken hau, euskaltzaleen bilbainismoa alegia.

Baina honen parean, sozialismoak 1890.eko huelgaren ondoren ezagutu zuen zabalkunde nabarmena izan zen. Bilboko auzo garaietan (San Francisco eta Bilbao la Vieja) erro finkoetan gihartu zen eta ohizko Bilboko gizartean beldur soziala sortarazi zuen. Langileen eraketa antolakunde finkoetan ez zen berria. 1869-1870.an jadanik lehen Langileen Internazional erakundera lotuta erakunde batzuk bazeuden. Baina langile hauek artisauek ziren gehienbat eta ez deserroturiko langile andana handia meategiak lanean.²⁸

²⁷ IRIGOIEN A., "Bilbo eta euskara", en *Euskera*, XXII Bilbao, Euskaltzaindia, 1977, pp.385-425.

²⁸ AGIRREAZKUENAGA J., *Euskal gizartearen barrena euskaltzaleatasun politikoaren sorrera garaian : zaldunak, matxinoak, enpresariak, langileen eraketa (1789-1876)*. Bilbao, Beitia ed., 1994, pp 129 y ss.

Datu guzti hauek hobeto ulertzen laguntzen dute *El Centenario*-ko artikulak. Agiri da ere bai Udaletxeak ez zuela onartu Begoñako Amaren koronaziora korporazio gisa joatea. Beraz aldizkariaren tradizionalismo katolikoaren islada, azken zenbakia behintzat izango da.

Historiaren arloan, artikulua onak agiri dira, historialari barriak enpirismo dokumentalean finkatu zirelako, literatoen asmakizun eta kontuak albo batera utziz. Egiazko espazio kontrastatua sortzen saiatu ziren oraindik anekdotismoa nagusi zelarik. Interesgarria Argos.eko kontatzen duen gertakizuna. E. Labayru, T.Guiard edo A. Artiñanorenak ere jakingarriak dira. J. M. Anguloren artikulua, ohizko Bilboko finantza publikoak eta garaian garaikoak konparatuz, interesgarria zen, ogasun sistemaren aldaketa, kontzeptu eta baloreen moldaketa barria adierazten zuelako.

Literatur arloko artikuluetan, F. Iturribarria kexu agiri da literatur zaletasun eskaxa sentitzen zelako eta litaraturzalea pertsona arraro xamartzat hartzen zelako. Hara zer idatzi zuen: "Una tras otra, como plantio en tierra estéril han languidecido para morir cuantas Revistas puramente literarias ha fundado el entusiasmo individual, y cada fracaso de este género ha inspirado reflexiones amargas y desgraciadamente justas acerca de un público que , ni por curiosidad, se toman el trabajo de leer el papel impreso que se le presenta ante los ojos". Bestalde olerkiak guztiak dira negartiak, iragan galduaren bila gai historiko epikoetan kokatuz.

Musikologiak behar zuena baino gutxiago landuta agiri da. I. Zubialde musikoloak tanboliteroei buruz artikulua polita burutu zuen.

Azkenik Adela Erasuk kazetaritza berria landu zuen, gizarteko kronika eginenez erret familiaren bisitaldia kontatuz.

4.1 Beste historialari eta idazle bilbotar

Mende bukaeran Pablo Alzola, Labayru arduratu ziren Bilboren historiari zatika egiten. P. Alzolaren sintesia XIX mendeaz, historia ekonomiko eta administratibo ardatzat harturik, gaurregunean ere baliagarria zaigu.²⁹ 600 urteurrena ospatzeko liburuan argi eta garbi dakusagu garaian garaiko ikusmolde historiografikoa.

Gorago aipatu dugu Unamunoren artikulua giltzarria, baina Unamunoren nobela nagusia ere historikoa da eta beraz bere lana historiografian kokatu beharra dugu. *Paz en la guerra*, garai bateko gogoeta ez ezik, gerra zibilak herri eta Bilbo moduko hirian benetan gertatzen denari buruzko lana dugu. Bilboko

²⁹ Besteak beste ikus, REPARAZ, V., *Vizcaya en la mano*, . Bilbao, 1896
P. Alzolaren artikulua 10-16 orrialdetan.

ideiak, mentalitateak eta eguneroko bizimodua dakusagu dokumentu literario jakingarrian eta nolabait Bilbo berria, progreso ideiarenean interpretatzen da. Beraz, Paz en la guerra, nahietaez, ikerlan historiografikoen barruan kokatu beharra dugu, komentatzen ari garen arian.

5. XX mendean zehar : Historiografiaren berrikuntza eta gorakada.

T. Guiardrren Historia de la noble villa de Bilbao, lau liburukitan argitaratu zuen, 1904-1912 urte bitartean. Bilboko lehendabizi historia sistematikoa burutu zuen. Kronika luzea da, posibismo dokumentalaren arian finkatua, hainbat informazioaren kabia. Zentzu batean, gaurregunean iturria bihurtu zaigu bere lana. XX mendean, T. Guiardrren lana alde batera utziaz, XIX mendearen lehen herean bukatzen baita, esango genuke bi saiakera interpretatibo ditugula aintzakotzat XIX mendez: Unamunoren lana alde batetik 1907.an El Sitio soziedadean aldarrikatua, goian aipatu dugun nobelaren aritik. Bertan Bilboren kontzientzia liberala eta espainolaren berri adierazi zuen. Bestalde R. Sanchez Mazasek,³⁰ *Apologia de la historia civil de Bilbao*, liberalismoaren kontraesanak agiri ditu, eta horretarako XIX mendeko gertaerak aztertzen ditu. Bere Frankismo aldeko jarrerak mozorrotu egin zuen jatorrizko liberalismoa.

Baina hauen parean, Centro Vasco, edo hobe esan Azkue eta Sotaren inguruan Bilbori buruz badaude gogoetak, nun euskaltzaletasun kulturala eta politikoa Bilbon ere gune garrantzitsua zen.

Guzti hauen ondoan ezin ahaztu Bilbon tradizionalismo katoliko konfesionalak ere izan zuela eragin handia gizartean.

Beraz Bilbo eta bilbortasunari buruzko mitologia, XIX mendean hasi zen sortzen eta XIX mendeko interpretazioz inguratutik XX mendean sortzen da. Berez liburu jakingarrietan ez ezik, egunkarrietan gorpuztu ziren joera molde berriak.

6. XIX mendez etorkizneko ikerketa lerroak

Sarritan ardura gehien zabalduriko gaiak hauek izan dira :

- Konbenzioko gerra, Zamakolada, Napoleonen aurkakoak, errealistak karlistak eta Bilboko setioak.

³⁰ SANCHEZ MAZAS R., "Apologia de la historia civil de Bilbao" in *Un siglo en la vida del Banco Bilbao. Primer Centenario. (1857-1957)*. Bilbao. 1957, pp 66-120

- Industrigintzaren sorrera: Azpiegituren eztabaidak, status forala, aduanen kokapena eta abar.

- Bilboren erakundetze politiko administratiboa: Batzar nagusierekiko eta Estatuaren baitan.

- Demografia eta eguneroko bizimoduaren kezkak.

- Burokrazia berrien gorakada.

- Soziabilitate politiko berria. Euskaltasun politikoaren sorrera.

- Hezkuntza eta kultur azpiegiturak.

Azkenik bidaiariak bere ikuspegi eta garaiko imaginarioen barri eman zigten. Baina Bilboko imaginarioetan murgildu beharra dago. Guzti hau klase desberdinen arteko liskarrez eta azterketez bete behar da, azken batean klase bakoitzak bere imarginario propioaren arabera jokatzeko duelako. Mesokrazia ere nabari da Bilbon baina muturretan klase dinamikak XIX mendean zehar areagotu egin ziren.

Bilbo erabat aldatu zen: Iraultza liberalaren ondorioz bere egituraketa politiko administratiboa eraberritu zelako. Ikusi besterik ez dago Bilboko ogasuna.

Bestalde, iraultza industrialak arrakastaz azkenik ere mende bukaeran lortu zen. Baina nolako kostu sozialen ondorioz ?

Etorkizuneko ikerketak azpiegiturazko egiturak sendotzean aritu beharko dira gerora gogoeta berriez jabeturiko gaiak lantzeko. Batez ere, pertsonen buruzko informazio zehatza lortuz eta halaber pertsona hauek sortu zituzten soziabilitate gune eta erakunde guneak aztertuz.

Beharrezko da ideien eta historia intelektuala biografia finkoiez egitea. Ondoren aipatuko ditut nire ustez egile interesgarri hauen biografia sendoa egiteke dirau.: J.A. Zamacola, F. Hormaeché, A. Diaz de Mendivil, C. Villabaso, A. Trueba, J.E. Delmas, E. Epalza, G. Gomez, F. Aguirre, S. Goicoechea, V.L. Gaminde, P. Lemonauria, F. Sagarminaga, P. Alzola.

XX mendean, T. Guiardren ikerketen ostean, zenbait interpretazio historiko literarioak gogoratu beharrezkoak dira: Emiliano Arriaga, Unamuno, Hermes eta Idearium aldizkariaren inguruan, J.C. Gortazar, J. Orueta, Sanchez Mazas.

Banco de Bilbaok 1957.an argitaratu zuen mendeurreko liburua bestalde XX mendeko historiografian garai bat markatu zuen. Bertan Sanchez Mazas eta Caro Barojaren saiakera erakargarriak argitaratu ziren eta bestalde historia ekonomikoaren interpretazioan oinarritzko tesiak ezarri. XX mende bukaeran antzeko liburu baten premia dakusagu. Lan orokor batzutan Th. Lefebvrean adibidez aipamen jakingarriak egiten dira. 1960.ko hamarkadan M. Basasek

Bilboren kronika lantzen du, baina nire ustez maila informatibo kronistatik at ez zuen lortu ibiltzea.

Gauregunean agiri dira monografi berriak eta beharbada Bilboko historia ingurune eta atlantiar hiriguneeen lerro konparatiboan egin beharko litzateke. 1957.ean Banco de Bilbaok argitaratu zuenaren parekoa, ikusmoldeak eraberrituz, XX mende bukaeran egin beharko genuke, esparruak, mitologietan eta literaturgintza berrian murgilduz.